

bilbao **museoa**

# **BBK**ateak **Utamaro – Guiard**

Arte Ederren Bilboko Museoa  
Museo de Bellas Artes de Bilbao

**bbk** 

# Utamaro – Guiard

## 8. aretoa

Eraikin zaharra


Lehen solairua

## Mundu flotagarriko margolanak

Esamolde eder horren bidez definitzen da *ukiyo-e*, Japoniako estanpa-generoa, zeinean maisu den Utamaro. Estanpa haiek puri-purian egon ziren Parisen XIX. mendearen amaieran, eta artista askok haien bilduma egiten zuten. Horietako bat Adolfo Guiard izan zen, hamazortzi urte bete berri zituela hiriburura joan zena. Argazkilari baten semea zen, eta laster bereganatu zituen zentratu gabeko enkoadraketak, inpresionismoaren koloreak eta sinbolismoaren poetika, estanpetatik ikasitako erritmo leunen arabera bizitza atzemateko. Ekialdearenganako lilura hori José Palaciok ere sentitu zuen. Mende erdi geroago, Guiardek bezala, Bilbotik Parisera bidaiatu zuen, eta gure museora iritsitako bilduma baliotsua eskuratu zuen.

# 1

## Eraikin zaharra Lehen solairua



# Kitagawa Utamaro

1753-1806

Margolaria eta grabatzailea; xilografiaren teknika erabilita egiten den *ukiyo-e* estampa japoniarraren Urrezko Aroaren ordezkari onenetako bat da. Artelan horiek XIX. mendearen amaierako margolari ugarik miretsi eta eskuratu zituzten, esate baterako, Manetek, Degasek eta Guiardek berak, eta Mendebaldera iritsi ziren arte japoniarraren lehen adibideetako bat izan ziren. Utamarok Edo (gaur egungo Tokio) izan zuen bizileku eta lanleku XVIII. mendearen amaieran, eta bertan espezializatu zen hainbat klase sozialetako emakumeen –horietako zenbait prostitutak, hiriko plazeraren auzoetan– errepresentazio idealizatuan. Bere estilo dotorearen eta konposiziorako talentuaren bidez, aisialdi eta dibertimendu mundukoiko eszenak ere islatu zituen liburu ilustratu ugarian.

Edoko hiri-bizitza zalapartatsua erretratatu zuen Utamarok, eta “emakume ederren” irudiak (*bijin-ga*) onduz nabarmendu zen, bustoa edo gorputz erdia agerian, atzealde hutsen aurrean lerroaren apaintze-zehaztasuna gailenduta. Grabatuetan ikus daitekeenez, emakumeen berezko eiteak, adierazpideak eta jarrerak atzeman zituen. Gutun bat irakurtzen ageri da bat, kontzentratuta; bestea bainugelatik irteten, txabusina zabaldua, eskuak lehortzen dituen bitartean; hirugarrena pipa erretzen ari da. Ite beltzeko orrazkera doiarekin, ekinean erretratatuta daude, instant batez atzitu izan balitu bezala. Beste estampa batean, Daisjo Henjō poeta ospetsua ageri da poema erotikoen egile Ono no Komachi errespetatua gorreatzen, edertasun klasikoko prototipoa zenari txabusinaren mahukan amodio-mezua leun utziz.



**Izenbururik gabea (Emakumea gutuna irakurtzen).  
Fujo ninsō juppon seriekoa (Fisionomia  
femeninoaren hamar mota)**

c. 1792-1793. Inprimatze xilografikoa koloretan, paperean

María de Arechavaleta andrearen dohaintza, José Palacio jaunaren bildumakoa, 1953an



**Izenbururik gabea [Uwaki no sô (Emakume aldabera)]. Fujin sôgaku juttai seriekoa (Hamar fisionomia femenino)**

c. 1792-1793. Inprimatze xilografikoa koloretan, paperean

María de Arechavaleta andrearen dohaintza, José Palacio jaunaren bildumakoa, 1953an



**Hyōgorō / Hinakoto (Hyōgo etxeko Hinakoto gortesaua). Bijin Kiryō kurabe seriekoa (Emakume politen erakargarritasunaren konparazioa)**

c. 1795. Inprimatze xilografikoa koloretan, paperean

María de Arechavaleta andrearen dohaintza, José Palacio jaunaren bildumakoa, 1953an





## Go shiki zome rokkasen (Sei Poeta Hilezkorren bost maitasun-kolore)

c. 1798. Inprimatze xilografikoa koloretan, paperean

María de Arechavaleta andrearen dohaintza, José Palacio jaunaren bildumakoa, 1953an



**Rikōmono (Orojakilea). Kyōkun oya no me kagami seriekoa (Guraso zelatarien betaurrekoak)**


c. 1802-1803. Inprimatze xilografikoa koloretan, paperean

María de Arechavaleta andrearen dohaintza, José Palacio jaunaren bildumakoa, 1953an

# Adolfo Guiard

1860-1916

Bilbon eta Bartzelonan ekin zion ikaskuntza artistikoari, eta Parisen prestakuntza osatu zuen lehen euskal artista izan zen; han bizi izan zen 1878 eta 1886 artean. Parisen jaso zuen joera inpresionista eta sinbolisten eragina, Degas, Monet, Gauguin, Puvis de Chavannes eta beste artista berritzaile zenbaitekin harremana izanda. Bizkaira itzuli zenean, inpresionismoa ekarri zuen euskal margolaritzara. Lehenik, Bilbon jarri zen bizitzen, eta, gero, Bakion, Muruetan eta Deustun; leku horietan, libreki margotu zezakeen *au plein air*, naturan, baina hiriburuko bizitza sozial nahiz kulturaletik aldendu gabe. Erakusketetan sarri agertzen ez bazen ere, haren margolanek polemika ugari sortu zituzten; marrazki finekoak eta gama kromatiko sotilekikoak ziren, eraldatzen ari zen landa-eremu bateko ohitura eta paisaiei buruzkoak.



## **Txo**

1887. Olioa mihisean

Euskal arrantza-ontzietan, *Txo* deitzen zioten hainbat lanetan laguntzen zuen mutikoari; besteak beste, sukaldean aritzen zen. Oraindik umea den mutila, begirada betazpitsuz, lana eten duen une batean atzeman du Guiardek, esku batean aiztoa duela, bestearekin buruari hazka egiten dion bitartean. Margolariak lehen planoan kokatu du, argi kontra samarrean, lerro bihurgunetsu eta erritmikoz marraztuta irudia –margolariak Teofilo anaia gazteena erabili zuen modelotzat–, Bilboko itsasadarreko paisaiaren aurrean lerro garbiz, han itsasontzi batzuk nabigatzen ari direla..

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena 1923an



## **Itsasadarra Erandio Behekoan**

1897. Olioa oholean

Ura eta zerua dira protagonistak bat-batean ustekabez egindako tankera daukan konposizio honetan, hodeien artean fabrikako tximiniei darien kea agerian, nahiz eta Guardek japoniar estanpatik eta argazkitik eratorritako baliabideak erabiltzen dituen, eta horren erakusgarri da eskuinean ainguratutako ontzi handiaren popa-aldea, eszenan kasualitatez txertatu dela dirudiena. Nerbioi itsasadarrean girotuta dago, jabeek egileari margotzen uzten zioten eremu batean. Ezkerrean, ontzi ugari porturatzen ari dira burdin mineralaren zamalanetarako kaietan.

Emiliano Uruñuela jaunaren dohaintza 1924an



## Beirate-proiektua (sei panel)

c. 1901-1902. Olioa oholean

Multzo hau Bizkaiko Foru Aldundiak Gernikako Batzar Etxerako beirate batzuk diseinatzeko egin zion enkarguari dagokio. Artistak egunsentiaren eta ilunabarraren arteko eguneko orduak erabili zituen, gizadiaren bilakaera eta aurrerapen ekonomiko eta teknologikoa islatzeko, nomaden eta artzainen hastapenetatik hasi eta nekazaritza, arrantza edo meatzaritza garatzera bitartekoa. Garapen hori, gerora, senide arteko gerrak ilunduko zuen, eta horixe islatzen du giza irudirik gabeko eszena bakarrak. Azkenik, susperraldia eta azken atsedena, Guiarden arabera, merkataritzaren eta nabigazioaren bitartez iritsiko ziren, eguzkia sartzearekin batera.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpina 1913an



## **Bizitza. Beiratea prestatzeko marrazkia**

c. 1902-1903. Tinta eta grafitoa landare-paperean

Bilduma pribatu baterako beirate bateko zirriborroa izanik, Bizitza honetan denbora igarotzeari eta heriotzari buruzko irudi ugari daude bilduta, hala nola hainbat adinetako emakumezko pertsonaiak, bidea, bizitzaren zuhaitza edo ametsa. Haran sakon batean ageri da eszena, zerumugaraino sigi-sagaka doan bidezidor batek zeharkatuta, gizakiak eta animaliak elkarrekin bakean bizi direla. Erdigunetik bereizitako konposizioak, uhinekiko apain-lerroekin batera, Japoniako estanpak Guiarden obran izandako eragina erakusten dute.

1992an eskuratua



## **Krabelin gorridun baserritar gaztea**

1903. Olioa mihisean

Pertsonaia protagonistak bitan banatzen duen eszena Elorrietan ageri da, Bilboko hiri-garapenak xurgatu zuen itsasadar ondoan kokatutako auzo periferikoan. Han zeukan estudioa Guiardek, nekazarien baratzeen eta marinela-etxeen artean. Neska gazteak aurrez aurre begiratzen dio ikusleari, zuzenean, buruan daukan esne-kantinaren heldulekuari ezkerreko eskuaz helduta. Besoen jarrerak uhin-mugimendua eransten du konposizioan, zuhaitzaren enborrak era berean berregiten duena. Koadroan nagusi den kolore urdinak atmosfera ingurutzailera eragiten du, neskatoak ahoan daraman krabelinaren gorriarekin kontrastean.

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpena 1913an



# BBKateak

*BBKateak* erakusketa-proposamenaren helburua da bildumari narratiba berriak ematea, museoaren handitze proiektuko lanek iraun bitartean. Aldizka eguneratuko den aurkezpen-programa dinamiko baten bitartez, eraikin zaharreko areto bakoitzak bi artistaren eta haien lanen espero gabeko aurrez aurreko bat erakutsiko digute; denboran edo/eta jatorri kultural edo geografikoan urrunekoak izan daitezkeen izenak izango dira; horrela, arteari buruzko ikuspegi eraldatzailea eta eraikitzen ari dena iradokiko da. Modu horretan, museoaren metamorfosia islatuko da etengabe aldatzen ari den bilduma batean.

Programa *Hamahiru Centaurusera* lanak abiaraziko du; Sergio Prego artistaren eskultura-proiektua da, aretoak hustetik sortua.